

## MIKROTESTUEN LEHIAKETA INSTAGRAMEN:

### “Bonelli arranoaren abenturak Araban”

#### Lehiaketaren oinarriak

##### 1. Lehiaketaren eremua

Foru Aldundi honetako Ingurumen eta Hirigintza Sailak LIFE 16 NAT/ES/235 proiektuan parte hartzen du, Mediterraneoko mendebaldeko biztanleek Bonelli arranoa azpiegitura elektrikoetara egokitzekoan, “AQUILA a-LIFE” proiektua esan ohi zaionean. Proiektua GREFA-Fauna autoktonoa eta haren habitata birgaitzeko taldeak koordinatzen du eta erakunde batzuk dira beste kideak, hala nola NIK Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, Balearretako Natura Parc Fundazioa, ISPRA Italiako Instituto Superiore per a la Protezione e Ricerca Ambientale eta LPO Frantziako Ligue pour la Protection des Oiseaux. Europako Batzordeak laguntzen du hori finantzatzen LIFE Natura finantza tresna medio.

Proiektu horren esparruan, Bonelli arranoa (*Aquila fasciata*) zaintzen lagundu asmoz, Instagramen “Bonelli arranoaren abenturak Araban” mikrotestuen lehiaketa antolatzen du Arabako Foru Aldundiak. Haren gaiak EAEn desagertzeko arriskuan katalogatuta dagoen hegazti horretaz mintzatu edo hura aipatu behar du.

Kontakizun laburrak idaztea atsegin baduzu, animatu eta literatura lehiaketa honetan parte hartu. Mikrokontakizun bat idatzi beharko duzu hark protagonista izango duenaren, hau da, Bonelli arranoaren lehengo egoera, oraingoa eta etorkizuneko azalduko duena. Ekimen horrekin, erakundeak herritarrak kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi ditu Euskal Autonomia Erkidegoan mehatxatuen dauden hegaztietako bati buruz. Lehiaketa amaitutakoan, jasotako testuak Arabako parketxe sarean erakutsiko dira: Izkin, Valderejon eta Sobrongo Uraren Museoan, erakusketa formatuan edo egoki iritzitako beste batean.

##### 2. Parte hartzaileak

Edozein herrialdetako eta 16 urte baino gehiago dituzten pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute. Lehiaketan parte hartzea doakoa da eta oinarri hauek onartzea dakar. Arauren bat betetzen ez duena lehiaketatik kanpo geratuko da. Datuak lehiaketa amaitutakoan egiaztatuko dira, eta baliogabetuta geratuko dira egiaztatzean datu okerrak edo gezurrezkoak eman dituzten parte hartzaileak.

##### 3. Zein da lehiaketaren gaia?

Lehiaketaren gai nagusia hegazti bat da, Bonelli arranoa deritzona (*Aquila fasciata*), zeinaren populazioa mundu mailan mehatxatuta baitago.

Parte hartzaileek kontakizun bat aurkeztuko dute gehienez. Haietan, arrano hori izango da protagonista Arabako lurraldeko edozein ingurunetan.

#### **4. Baldintzak**

##### 4.1. Aurkezteko formatua

Lanak gai librea izango dute, jatorrizkoak izango dira eta argitaragabeak, eta ez dira loturik egongo konpromiso editorialetara eta lehenago ez dute parte hartu izango beste lehiaketa batzuetan. Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahalko du, eta gehienez ere 70 hitz luze izango da (izenburua kontatu gabe). Mikrokontakizuna euskaraz zein gaztelaniaz idatzita egon ahalko da, Arial letran, 12 neurrian (Word formatua).

Mikrokontakizuna posta elektronikoz bidaliko da Word formatuan (horrela baino ezin da lehiaketan parte hartu) helbide honetara: [biodiversidad@araba.eus](mailto:biodiversidad@araba.eus). Mezu elektronikoaren gaien testu hau jarri beharko da: "Mikrotestuen lehiaketa: Bonelli arranoaren abenturak Araban". Gainera, mezu elektronikoan informazio hau erantsiko da: izengoitia, egilearen izena eta abizenak, adina, telefonoa eta harremanetarako posta elektronikoa.

##### 4.2. Aurkezteko epea

Lanak 2020ko apirilaren 10etik 2020ko ekainaren 1aren 23:59ra bitartean bidali beharko dira.

##### 4.3. Bazter geratuak

Bazter geratuko da hegazti espezie horri buruzko beste lehiaketa edo sariketa batean saritutako lan oro.

#### **5. Irabazleak**

Jasotako testuak sustatzaileak argitaratuko ditu banan-banan, Arabako Natura Parkeen Instagrameko profilean (@arabakoparkenaturalak); beti ere, nork egin duen aipatu gabe eta #bonellirelatos traolarekin. Argitaratutako ondorengo 15 egunetan jasotako like-ek balorazioaren % 50 egingo dute. Gainerako % 50a idazle edo kazetari, Arabako Foru Aldundiko teknikari eta natura parkeetako teknikari banak emango dute. Hiru kontakizun hautatuko dira, hiru irabazle, eta beste hiru horien badaezpadako ordezkari gisa. Kontakizunaren originaltasuna, erabilitako estiloa eta aurkeztutako lanen sormena baloratuko dira. 2020ko uztailaren 15ean emango da epaia.

Lehiaketa amaitutakoan, jasotako kontakizun guztiak Arabako parketxe sarean erakutsiko dira: Izkin, Valderejon eta Sobrongo Uraren Museoa, horretarako eginiko erakusketa batean edo egoki iriztitako beste batean.

Saritutako kontakizunak uztailaren 21ean aurrera iragarriko dira publikoki, araba.eus web orriaren bitartez, eta era pribatuan lehiakide gutzietan, posta elektronikoa medio.

## 6. Lehiaketako sariak:

Irabazle bakoitzak 150, 125 eta 100 euroko balio txartel\* bat jasoko du, ORYX dendan gastatzeko.

(\*) Balio txartela ORYX dendan erabiliko da (ORYX La tienda del amante de la naturaleza, <https://www.weboryx.com/> C/ Balmes, 71 · 08007 · Barcelona · Teléfono (+34) 934 185 511 – Correo electrónico: oryx@weboryx.com).

## 7. Irabazleak jakinaraztea

Epaimahaiak bere epaia eman eta zozketa egin eta 15 eguneko epean, AFA harremanetan jarriko da irabazi duten lanen egileekin lehenago emandako telefonoa edo helbide elektronikoa medio saria jakinarazteko.

Irabazleak emandako telefono zenbakia edo helbide elektronikoa erabiliz kontaktatzerik ez balego, hautatutako pertsonen zerrendan hurrengo tokian dagoen parte hartzailearekin kontaktatuko da, eta oinarrietan parte hartzeko ezarritako baldintzak bete beharko ditu berak ere.

Arabako Foru Aldundiak eskubidea dauka saritutako lana aldatzeko, hura inprimatzeko edo hasieran bertan ez zeuden logotipoak edo testuak sartzeko zailtasunak izanez gero.

Gainerako lanak AFAk PDF formatuan (osorik edo hautatutako zati bat) editatuko duen antologia batean sartuko dira. Antologia online argitaratuko da.

## 8. Oharrak

### 8.1. Lehiaketaren oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartzeak haren oinarri guztiak onartzea dakar. Gerta daitezkeen kasuak, antolatzaileek lehiaketaren oinarrietan aurreikusi ez dituztenak, antolatzaileek interpretatuko dituzte askatasunez.

Parte hartzaileek erantzukizuna izango dute jabetza intelektualaren eta norberaren irudirako eskubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenak betetzeko, eta erantzukizunez adieraziko dute obra lehiaketa honen esparruan zabaldu edo erreproduzitzeak ez duela urratuko edo kaltetuko parte hartzailearen ez hirugarrenen batere eskubiderik.

Antolatzaileek aurkeztutako obrak argitaratu ahalko dituzte, egilearen izena adieraziz.

### 2.1. Ustiapen eskubideak lagatzea

1. Lehiaketa honetan parte hartze hutsagatik egileak eskusiboki lagatzen dizkio Arabako Foru Aldundiari aurkeztutako lanaren ustiapen eskubide guztiak, hauek barne, besteak beste: edozein sistema grafiko, mekaniko, elektronikoa, erreprografiko, digital edo beste edozein motatakoa medio erreproduzitzeko; formatu edo euskarri eta kanal orotan, eta salmentaren,

alokairuaren, maileguaren edo bestelako edozein moduren bitartez banatzekoa; publikoki komunikatzekoa, ikus-entzunezko proiektzioa, antzezpen eszenikoa, irrati difusioko emanaldia, kable, haridun zein hari gabeko zuntz optiko, sistema telematiko digital zein online bidezko transmisioa, datu basean sartzea edo beste edozein sistema medio; eraldatzeko, itzulpena eta ikus-entzunezko edo antzerki lanera edo eratorritako beste lan batzuetara egokitzea barne eta, oro har, saria emateko unean ezagutzen diren ustiapen modalitate eta hedatzeko bitarteko guztietarako, munduko herrialde eta hizkuntza guztietan, eta jabetza intelektualerako eskubideen indarraldi osoan. Horren barruan sartzen da Bonelli arranoari buruzko hezkuntza, sensibilizazio eta kontzientziazio material gisa ustiatzea, lanaren egilea bere izen-abizenen bitartez aipatuz beti. Oinarri hauek onartzeak lana ohiko hedabideetan doan erabiltzeko baimena dakar.

**2.** Lan irabazlearen ustiapen eskubideak lagatzeak hura liburu gisa editatzeko eskubideak lagatzea dakar, modalitate hauek erabiliz: azal gogorrekoa, azal malgua, paper azala, edizio ekonomikoak eta/edo poltsikokoak, luxuzkoak, biobliofiloentzakoak, ilustratuak, enpresa edo beste argitaletxeentzako bereziak, eskolentzakoak, klubentzakoak, dub digitala, CD-ROMa edo bestelako euskarri digital edo magnetikoak, argitaletxearen bildumetan edo aldizkako argitalpenetan zati batean nahiz osorik sartzea, eta une horretan ezagutzen den beste edozein modalitate.

**3.** AFAk berak zuzenean egin ahalko du lan sarituaren gaineko eskubideen ustiapena edo hirugarrenekin, eskusiban zein ez, haien ustiapenik eta gauzapenik onena ahalbidetzeko behar diren erabakiak hartuta, Espainian nahiz atzerrian. Saritutako egilea behartuta dago edizio kontratua edo kontratuak, saritutako obraren gaineko ustiapen eskubideak lagatzekoak, eta lagapen horiek era egokian formalizatzeko behar diren gainerako agiriak sinatzera.

## 2.2. Datuen babesa.

Arabako Foru Aldundiak parte hartzaileen datu pertsonalak tratatuko ditu haiekiko harremana eta haiek lehiaketa honetan izena eman eta parte hartzea kudeatzeko, harreman horren esparruan beti, eta datu horiek gordeko ditu lehiaketak dirauen bitartean.

Eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko lehiaketaren arduradunarengana jo beharko du: Arabako Foru Aldundia. DBLOk aitortzen dizkion eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabili ahalko dituzte parte hartzaileek Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Bulegora joz (Probintzia plaza, 5, PK 01001 Vitoria - Gasteiz (Araba)) eta bere eskabidea, bere NANaren edo beste nortasun agiri egoki baten kopia erantsiz, "Datuen babesa" adieraziz, edo helbide elektronikaren bitartez.

Antolatzaileek izendatutako epaimahaiaren ardura izango da oinarriak interpretatu eta haien aplikazioak sor litzakeen zalantzak argitzea. Halaber, antolatzaileek lehiaketaren oinarriren bat aldatzeko eskubidea daukate, egoki iritziz gero.

Edozein zalantza argitzeko helbide honetara idatz dezakezue: [biodiversidad@araba.eus](mailto:biodiversidad@araba.eus).

